



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

LANTIK, ZUGAZTEL ETA BISCAYTIK ERAKUNDEEK LEGEGINTZALDIKO PROIEKTUEN BARRI EMON DABE BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN

- **Erakundeetako arduradunak, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatuta bere sailaren esku dagozan erakunde horreen jardurearen balantzea egin dauen Elixabete Etxanobe Landajuela Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuagaz joan dira**

(Bilbon, 2022ko maiatzaren 5ean). Aldundiak Lantik, Zugaztel eta Biscaytik foru erakundeak legegintzaldi honetan gauzatzen ari diran jarduketei buruzko xehetasunak emon ditu gaur. Erakunde horreetako arduradun nagusiek, Elixabete Etxanobe Landajuela Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuagaz batera, erakundeen jardureari buruzko informazioa emon dabe Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako batzordean. Bizkaiko parlamentuak aho batez eskatu ebazan euren agerraldiak apirilaren 11n, Etxanobek zuzentzen dauen sailaren esku dagozan hiru erakunde horreek egiten ari diran lanari buruzko azalpenak jasoteko.

Nerea Martiartugaz (Lantik), Isabel Sánchez Roblesegaz (Zugaztel) eta Alaitz Etxeandiagaz (Biscaytik) batera, diputatuak Batzar Nagusietako taldeek planteau deusiezan itaunei erantzun deutse, legegintzaldi honetan hiru erakundeek dituen helburu, ardatz estrategiko eta proiektuen laburpena eginez. Ganera, erakunde horreetako baxotxa Aldundiko sail guztietan egiten ari dan proiektuak laburbildu ditu, bai eta horreek Bizkaiko herritarrengan zelango eragina daukien be.

Hasieran hiru zuzendarien agerraldia eskatu eban EH Bilduk egindako itaunei erantzunez, Lantiken hainbat arloko gaurkotasuna zehaztu dau diputatuak: erakunde horrek Etxetik proiektuan izan dauen parte-hartzea, langileak kontratatuko politikea, software librearen erabilera eta bardintasun-planaren garapena, hain zuzen be. Etxanobek Aldundiaren sistema informatikoak kanpoko mehatxuetatik babesteko Lantikek egiten dauen lanaren inguruan be erantzun dau. Zibersegurtasunaren Euskal Zentroaren datuetan oinarrituta, Etxanobek azaldu dauenez “Ukrainako gerrea dala eta hackerren erasoak areagotu egin dira”. Arriskuak aztertzeo politikaren barruan, Lantikek Aldundiari bialtzen jakozan mezu elektronikoan “% 80” “mozten” ditu, helbidera heldu aurretik.

Beste alde batetik, Bizkaytik orain dala hamarkada bat hasi zan lanean dozena erdi udali zerbitzuak emonez, eta orain, Bizkaiko udalerrriak eta mankomunidadeak modernizetako eta digitalizetako Aldundiaren babesa daukien “131” udal atxiki jakoz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Etxanobek nabarmendu dauenez, legegintzaldi honetan “aurrerapausu garrantzitsua” emon da laguntza teknologikoko prozesu horretan, eta, ondorioz, “582 aplikazio” ezarri dira. Modu berean, toki-administrazioak “3.800 erabiltzaile bako bako gehiagok” erabili ohi ditue tresna informatiko horreek. 2021ean bakarrik, Biskaytik-ek “230.000 izapide telematikoko bako bako gehiago” egitea ahalbidetu eban, hau da, aurreko urtean bako bako “% 58” gehiago. “Hurrengo pausuen” artean, foru arduradunak toki erakundeentzako zibersegurtasun-zerbitzuen garapena eta datu edegien taldeen garapen barriak aitatu ditu.

Beste alde batetik, herritarrentzako arreta-kanalen bidez komunikazioa errazteaz arduratzen dan Zugaztel soziedadearen kasuan, Etxanobek esan dauenez legegintzaldi honetan “jauzi erabagigarria emon da eraldaketa digitalean”, eta horri esker, kanal anitzeko informazio-zerbitzuen “eraginkortasuna eta efizientzia” hobetu dira, erantzun “hobea eta azkarragoa” emoteko asmoz. Aldundiak “milioi bat bako bako gehiago” informazio-eskaera jasoten ditu urtero, eta, “aurrez aurrekoak ez diran kanalak”, horren artean telefonoa, webgunea eta sare sozialak, ezinbesteko tresna bihurtu dira eskaera horreei erantzuteko, beti be aurrez aurreko arretea baztertu barik. Hurrengo erronkak telefono bidezko arretea zenbaki bakar batean bateratzea eta komunikazio-kanal barriak edegitea dira. Horri jagokonez, kolektibo sentsibleentzat bideo-deiak sartzeara “fase pilotuan” dago, gor-mutuentzat, adibidez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LANTIK, ZUGAZTEL Y BISCAYTIK INFORMAN EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA DEL ESTADO ACTUAL DE SUS PROYECTOS DE LEGISLATURA

- **Sus responsables acuden acompañadas de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe Landajueta, quien ha hecho, a instancias de la Cámara vizcaína, un balance de actividad de estas entidades adscritas a su departamento.**

(Bilbao, a 5 de mayo de 2022). La Diputación ha ofrecido hoy detalles sobre las actuaciones que sus entes forales Lantik, Zugaztel y Biscaytik están desarrollando en la presente legislatura. Sus máximos responsables, junto con la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe Landajueta, han ofrecido información sobre su actividad en una comisión celebrada en las Juntas Generales de Bizkaia. La Cámara vizcaína había pedido por unanimidad sus comparecencias el pasado 11 de abril para que dieran explicaciones sobre el trabajo que están desarrollando estas tres entidades adscritas al departamento que dirige Etxanobe

Acompañada de Nerea Martiartu (Lantik), Isabel Sánchez Robles (Zugaztel) y Alaitz Etxeandia (Biskaytik), la diputada se ha encargado de responder a las cuestiones que les han planteado los grupos junteros, haciendo un resumen de los objetivos, ejes estratégicos y proyectos en los que están inmersas las tres entidades en la presente legislatura. Además, ha resumido los proyectos que están llevando a cabo cada uno de estos entes en los distintos departamentos de la Diputación y cómo afectan éstos a la ciudadanía de Bizkaia

A preguntas de EH Bildu, grupo juntero que presentó inicialmente la comparecencia de las tres directoras, la diputada ha abierto la comparecencia detallando la actualidad de Lantik en cuestiones como la participación de esta entidad en el proyecto Etxetik, la política de contratación de personal, el uso de software libre y el desarrollo de su plan de igualdad. Etxanobe ha respondido también al trabajo de Lantik para proteger a los sistemas informáticos de la Diputación ante posibles amenazas externas. Apoyándose en datos del Centro Vasco de Ciberseguridad, Etxanobe ha explicado que los ataques de hackers “se han incrementado con la guerra de Ucrania” y que dentro de una política de análisis de riesgos, Lantik “intercepta” el “80%” de los correos electrónicos que son enviados a cuentas de la Diputación, sin que lleguen a su destino.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, Bizkaytik, que inició su actividad hace una década ofreciendo servicios a media docena de ayuntamientos, cuenta ahora con la adhesión de “131” entidades locales que cuentan con el apoyo foral para la modernización y digitalización de los municipios y mancomunidades vizcaínas. Etxanobe ha destacado que durante esta legislatura se ha dado un “avance importante” en dicho proceso de acompañamiento tecnológico, logrando implantar “582 aplicaciones”. Asimismo, “más de 3.800” usuarios y usuarias de la administración local utilizan habitualmente estas herramientas informáticas. Solo en 2021, Biskaytik permitió ejecutar “más de 230.000 trámites telemáticos” lo que supuso un crecimiento del “58%” con respecto al año precedente. Entre los “próximos pasos”, la responsable foral ha puesto el foco en el desarrollo de servicios de ciberseguridad para las entidades locales y nuevos desarrollos de grupos de datos abiertos.

Por su parte, en el caso de Zugaztel, sociedad que se encarga de facilitar la comunicación a través de los diferentes canales de atención a la ciudadanía, Etxanobe ha dicho que esta legislatura ha supuesto un “salto decisivo en la transformación digital” que ha permitido mejorar la “eficacia y la eficiencia” de los servicios multicanal de información, con el objeto de dar una respuesta “mejor y más rápida” a la ciudadanía. La Diputación recibe “más de un millón” de solicitudes anuales de información y los canales “no presenciales”, como el teléfono, la web y las redes sociales, se han convertido en un vehículo imprescindible para dar respuesta a estas peticiones, sin que esto vaya en detrimento de la atención presencial. Los retos más próximos son unificar la atención telefónica en un único número y abrir nuevos canales de comunicación. En este sentido, está “en fase piloto” la introducción de la videollamada para colectivos sensibles como los sordomudos.